



**Arartekoaren 2018R-402-17 Ebazpena, 2018ko azaroaren 8koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari iradoki zaio bere isiltasun jarrera amaitu dezala eta administrazio errekurtsua berariaz ebatzi dezala.**

### Aurrekariak

1. Arartekoak jaso zuen Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren zerbitzura lan egiten duen bitarteko funtzionario baten kexa idazki bat. Bertan, funtzionario horrek adierazi zuen ez zegoela ados (...) betetzen zuen lanposturako onartutako derrigortasun-dataren aldaketarekin.
2. Kexa izapidetzeko onartu ondoren eta interesdunak adierazi zuenez gai horren harira aukerako berraztertze errekurtsua jarri zuela, Arartekoak Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailera jo zuen honako hau aurreratu ziezaion: interesdunaren errekurtsuari eman nahi zitzaion tratamendu arrazoitua edo hura noiz ebatziko den.
3. Lehenengo jarduketa horri erantzunez, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak erantzuteko txosten bat helarazi zion erakunde honi; bertan, derrigortasun-dataren aldaketa eragin zuten aurrekarien berri eman ondoren, honek zioen sail ukituak beste txosten bat egiteko zain zegoela, bai eta inplikaturako interesdun guztiekin nahitaezko entzunaldi izapidea osatzeko zain ere. Txostena hau esanez amaitzen zen: *“Aurreko ahapaldian aipatu dudan txostena (ukitutako sailarena dela irizten da) jaso ondoren, planteaturiko gai ei erantzuna emateko prest egongo naiz”*, eta egoera horrek eragin zuen Arartekoa erantzuteko zain egon behar izatea.
4. Aurrerago, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak erakunde honi idazki bat igorri zion eta honako hau zioen bertan:

*“...nire ardurapekoa den Sailari lotuta dagoen Funtzio Publikoko Sailburuordetzaren iritziz (aldaketak ukitutako saila ez dela argitu behar da), behar bezala arrazoituta dagoela hizkuntza eskakizunaren derrigortasun dataren ezarpena eztabaidaren xede diren (...) lanpostuen kasuan, lanpostu horien ezaugarrien arabera irizpide objektiboetan eta ematen duten zerbitzuan oinarrituta. Hori guztia, Administrazioaren unitate hau harremanetan jartzen den komunitatearen eta kolektibo zehatzen berezko hizkuntzaren hiztun direnen ehunekoa aintzat hartuta.*

*Derrigortasun data honek eragina izango du, gaur egun, lanpostuan dagoen pertsonak bere funtzioa betetzeari uzten dion unetik aurrera, eta orduan, lanpostu hori bi hizkuntzak ezagutzen dituen pertsona batek hartuko du”.*





5. Erakunde honek interesdunari jasotako informazioa igorri zion, eta azken horrek une hori baliatu zuen sailak bere idazkian adierazitakoaren gainean alegazio batzuk egiteko eta salatzeke, aldi berean, zoritxarrez bere errekursoari oraindik ez zitzaiola erantzun, hau da, *“haren gainean erabateko isiltasuna zegoela.”*
6. Egoera hori ikusita, errekurtsua jarri zenetik zenbat denbora igaro den kontuan hartuta (ia urtebete), Arartekoak beste urrats bat egin zuen bere esku-hartzean; hala, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari interesdunaren errekurtsuari berariaz erantzuteko betebeharrari buruzko legezko gogorarazpen bat helarazi zion, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeak (urriaren 1eko 39/2015) 21. artikulua agindutakoaren arabera.
7. Gogorarazpen horri erantzunez, sailak hauxe jakinarazi zion erakunde honi:

*“Indarrean dagoen lanpostu zerrendak 7.000 lanpostu hartzen ditu, eta guztien edukia zabala da definitu eta zehazten dituzten esparru desberdinei dagokienez.*

*Administrazio jarduketaren egintza ordenatu honen aurrean, milaka hartzailek jar litzaketen berraztertze errekurtsuak ebazteko organo eskuduna Gobernu Kontseilua da.*

*Lanpostu kopuru handiagatik, eta aurreko ahapaldian aipatu dudan organoaren izaera berezi eta eginkizunak direla-eta, orokorrean, berraztertze errekurtsuak administrazio isiltasunaren bidetik erantzutea erabaki da, eraginkortasun, efizientzia, antolaketaren arrazionaltasun, eta prozeduraren ekonomiaren printzipioak aintzat harturik, printzipio horiek gidatu administrazio-jokabidea.*

*Okupatzen gaituen kasu honetan, interesdunak pasatzen utzi ditu, egoki iriztekotan, administrazioarekiko auzi-errekurtsua jartzeko epeak, eta orain, garaiz kanpo, ez da onargarria berrikustea, kolokan jarritz segurtasun juridikoaren printzipioa”.*

8. Erantzun horrek asko kezkatu zuen erakunde hau, han argi eta garbi aitortzen baitzen jardunbide jakin batzuk erabili direla, eta haiek ez datozela bat inondik inora ere administrazio onak berezko dituenekin. Horren ondorioz, Arartekoak bere izapidearekin jarraitu zuen jurisprudentzia konstituzional garrantzitsua baliaraziz (haren berri ebazpen honen gogoetetan emango dugu zehatz-mehatz), hark bere jarrera berriz aztertu ahal izango duen itxaropenarekin.
9. Nolanahi ere, azken saiakera hori egin arren, sailak ez du bere iritzia aldatu. Erakunde honi adierazi dionez:

*“...eta idazkian azaldutako aholkuak, etorkizunean, aintzat hartzea baztertu gabe, nire ardurapeko Sailaren jarrera errepikatzen dizut piztu den eztabaida garaiz kanpo berrikustearen onartezintasunari dagokionez, kolokan jartzen baitu segurtasun juridikoaren printzipioa”.*





## Gogoetak

1. Espedientea artxibatzeko orduan gertatutakoak ekarri du interesdun honen kexaren arrazoia Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak izan duen isiltasun jarrerara mugatzea (zehazki, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila), hark kexa jarri aurretik aurkeztutako administrazio errekurtsuari lotuta.

Aurrekarietan adierazi den moduan, erakunde honek errekerimendu bat baino gehiago egin arren, sailak zenbait printzipio aipatu ditu, esaterako: administrazioaren jardunean izan behar diren eraginkortasuna, efizientzia, antolakuntza-arrazionaltasuna eta prozedura-ekonomia, eta bereziki, segurtasun juridikoaren printzipioa; printzipio horiek guztiek justifikatzen dute interesdunaren errekurtsuari berariaz erantzuteko legezko betebeharra betetzeko duen jarrera uzkurra.

2. Arartekoa jarrera horrekin ez dator bat, bereziki hau argudiatzen duenean: *“Interesdunak pasatzen utzi ditu, egoki iriztekotan, administrazioarekiko auzi-errekurtsua jartzeko epeak, eta orain, garaiz kanpo, ez da onargarria berrikustea, kolokan jarriz segurtasun juridikoaren printzipioa”.*, beraz, kexa dela-eta egindako esku-hartzean, erakunde hau finkatuta dagoen jurisprudenzia konstituzionalera jo du, eta azken honek apirilaren 10eko 52/2014 Epaia jasotzen du, besteak beste (RTC\2014\52).

Epai horrek gogorarazi zuen administrazioaren isiltasun negatiboa legezko fikzioa dela, herritarrek auzibidera jotzeko aukera izan dezaten helburu duena, administrazioaren jarduerarik ezaren ondorioak gaindituz. Halaber, hauxe adierazi zuen epaiak:

*«ante una desestimación presunta el ciudadano no puede estar obligado a recurrir en todo caso, so pretexto de convertir su inactividad en consentimiento del acto presunto, pues ello supondría imponerle un deber de diligencia que no le es exigible a la Administración». Por eso hemos dicho también que la «Ley no obliga al ciudadano a recurrir un acto presunto y sí a la Administración a resolver, de forma expresa», la solicitud o el recurso presentado por aquél. «Si el silencio negativo es una institución creada para evitar los efectos paralizantes de la inactividad administrativa, es evidente que ante una resolución presunta de esta naturaleza el ciudadano no puede estar obligado a recurrir, siempre y en todo caso, so pretexto de convertir su inactividad en consentimiento con el acto presunto, exigiéndosele un deber de diligencia que no le es exigido a la*



*Administración» (STC 188/2003, de 27 de octubre [RTC 2003, 188], FJ 6, en un razonamiento reafirmado luego en incontables supuestos). Es decisiva la apreciación de que «la Administración no puede verse beneficiada por el incumplimiento de su obligación de resolver expresamente en plazo solicitudes de los ciudadanos, deber éste que entronca con la cláusula del Estado de Derecho (art. 1.1 CE), así como con los valores que proclaman los arts. 24.1, 103.1 y 106.1 CE» (SSTC 86/1998, de 21 de abril [RTC 1998, 86], FJ 5; 71/2001, de 26 de marzo [RTC 2]).*

3. Ildo horretan, Arartekoak uste du oso adierazgarria dela Auzitegi Gorenaren 2010eko azaroaren 15eko epaia (RJ 2010, 8304):

*“Este motivo debe ser desestimado, pues, en los supuestos de silencio administrativo, el denominado “acto presunto” no es sino una ficción porque realmente no existe tal acto administrativo, independientemente de la eficacia positiva o negativa que legalmente se anude al mutismo de la Administración, pues, como declaramos, en nuestra sentencia de veintitrés de enero de dos mil cuatro (RJ 2004, 1021), -recaída en el recurso de casación en interés de la Ley, número 30/2003 -:*

*“No puede ocultar ni desconocer, que es ella quien genera la situación de inseguridad al no dictar resolución expresa. Tampoco puede olvidar que esa omisión constituye un frontal incumplimiento del mandato contenido en el artículo 42.1 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.*

*Siendo esto así, como lo es, no es de recibo que quien genera mediante una conducta claramente ilegal y contraria al ordenamiento una situación de inseguridad jurídica puede esgrimir esa inseguridad a su favor, pretendiendo obtener de ella ventajas frente a quienes sufren los efectos de la inseguridad creada.*

*Hemos dicho de modo reiterado, que nadie puede obtener beneficios de sus propios errores, omisiones e infracciones. Y esto, y no otra cosa, es lo que la Administración pretende cuando opone la inseguridad jurídica que se deriva de un estado de cosas que tiene su origen en su propio incumplimiento al no resolver los procedimientos pendientes, pues el modo lógico, natural, legal y que demanda la naturaleza de las cosas, para hacer cesar el estado de inseguridad que se denuncia es el de decidir las cuestiones planteadas. Por eso, la Administración, mediante el cumplimiento de la ley, puede hacer cesar, de raíz, el estado de inseguridad jurídica, de cuya existencia aquí se lamenta.”*



4. Horrenbestez, bistan da aurreko iritziek erakusten dutela Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak argudiatutako printzipioetako bat ere eta, bereziki, azken erantzunean behin eta berriro aipatu duen segurtasun juridikoaren printzipioa, ez direla nahikoak erakunde hau gogorarazteaz arduratu den legezko betebeharra nabarmen bete ez dela justifikatzeko; gaur egun hori Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeak (urriaren 1eko 39/2015) 21. artikulua jasotzen du.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, Arartekoak honako gomendio hau egin dio Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari

### **GOMENDIOA**

Kexagile interesdunak aurkeztutako aukerako berraztertze errekurtsoa berariaz ebatzi dezala, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeak (urriaren 1eko 39/2015) 21. artikuluan agindutako betebeharraren arabera.

